

MADERAS DE LLODIO-KO PRENTSAURREKOA

Lehenik eta behin, eskerrak eman eta partekatu nahi dugu azken asteetan eskualde honetako enpresa batzordeek babesa eta aldarrikapena adierazten duten mozioak sinatu dituztela, helburu argi batekin: lanpostuak eta Aiaraldeako industriaren etorkizuna defendatzea.

Eskerrik beroenak Tubacex, Tubos Reunidos, Voestalpine (JEZ), Aiala Vidrio, Vidrala, Amurrio Ferrocarril, Envases, Laudioko eta Amurrioko udalak, Kider, Ascensores Iza, Artiach, Inauxa, Laudioko Udal Euskaltegia, Fribasa, Aresketa Ikastola, Aianox, Arabako Gizarte Ongizate Institutua, Onduline, BM Disu Aiara, Megatech eta borroka honi batzen ari diren beste hainbat enpresa batzorde, erakunde, hezkuntza eta gizarte-eragileri. Zuen elkartasuna funtsezkoa da aurrera jarraitzeko.

Mozioan jasotzen den bezala, Maderas de Llodio-ko eta oro har Aiaraldeako langile guztiok kezkatuta gaude enpleguaren suntsiketarekin, ez bakarrik Maderas-en, baizik eta eskualde osoan. Are gehiago, kontuan hartuta EEE hau aurrera ateraz gero, ekoizpenaren %40 Laudiotik kanpora eramango dutela eta Maderas-en etorkizuna benetako arriskuan jarriko dela; ondorioz, eskualdeko etorkizun industrialak are ilunagoa izango da. Horregatik guztiagatik, Batzordeok instituzioei eskatzen diegu behingoz langileen eta Aiaraldeako etorkizunaren alde jar daitezela eta Maderas de Llodion EEE hau geldiarazteko ahal duten guztia egin dezatela.

Bestalde, jakinarazi nahi dugu, kaleratze kolektiboaren prozesua hasi zenetik eta irailaren 9az geroztik enpresarekin izan ditugun bileretan, mahai gainean jarri duten erabakia guztiz neurritz kanpoko eta arbitrarioa dela.

Ez dago justifikaziorik enpresak ekoizpenaren %40 deslokalizatu eta 39 langile kaleratzea erabakitzeak. Maderas de Llodion ez da inor soberan. Ez dugu nahi ekoizpena kendu diezaguten; alderantziz, hobetu, zabaldu eta etorkizunean enplegu gehiago sortu nahi dugu. Horregatik, Komitetik, alternatiba bat planteatu diegu enpresari, produkzioa eraman ez dezan.

Asteazkenean, urriaren 1ean, Garnica-ren Logroño-ko bulego nagusien aurrean elkarretaratuko gara, argi eta garbi esateko ez dugula onartzen deslokalizazio hau eta enplegua bermatuko duten alternatibak bilatzea eskatzen diegula.

Era berean, instituzioen jarrera salatu nahi dugu. Enpresak ez ditu justifikatu erabaki honen arrazoi produktiboak ezta antolakuntzakoak ere, ez ditu alternatibak baloratu, eta hala ere Eusko Jaurlaritza eta Arabako Foru Aldundia beste aldera begira daude. Zeren zain zaudete esku hartzeko? Utzi langileak kriminalizatzen dituzten diskurtsoak erabiltzea eta zuen ekintzarik eza justifikatzea. Diru publikoa enplegua defendatzera bideratu behar da, ez kaleratzeak erraztera. Urriaren 2an, osteguna, Batzar Nagusietara eta Eusko

Legebiltzarrera joango gara agerraldia egitera eta manifestatzera, instituzioek gu entzun eta Maderas de Llodio eta Aiaraldeako industriako enplegua defendatzeko ekin diezaioten.

Beste behin ere, langile klasea gara gure eskubideen alde borrokatu behar dugunak.

Azkenik, bihotzez eskertu nahi dugu eskualde osoari egun hauetan erakusten ari zareten elkartasuna eta babesa. Zuei esker argi daukagu borrokatzea merezi duela.

Aiaraldean bizi eta lan egin nahi dugulako.

Maderas de Llodio-n ez dago inor soberan.

Maderas de Llodio-n enpleguaren eta etorkizunaren alde!

Aiaraldea defenda dezagun!